

Basque Culinary Centerrek, atzo aurkeztu zuen Gastronomía eta Sukaldaritza Zientzietan Gradua

2010/11/25

Basque Culinary Centerrek -San Sebastian Gastronomikan- aurkeztu ditu Gastronomía eta Sukaldaritza Zientzien Espainiako lehenengo graduaren ezaugarriak. Ekintza historikoa da aintzatespen akademiko handiena lortu baitu lanbide eta sektore honek; izan ere, ez dago gastronomía arloan unibertsitateko prestakuntza-eskaintza ofizialik. Are gehiago, fakultatea amaitzen ari dira Donostiako Parke Teknologikoan eta bere instalazioetan Zientzia Gastronomikoen ikerketa eta berrikuntza zentroa izango duen munduko bakarra izango da. Eraikinak bost solairu izango ditu, 12.000 metro koadro baino gehiago eta irailean irekiko ditu ateak.

Mondragon Unibertsitateko erretore losu Zabalak eta Basque Culinary Centerreko zuzendari Joxe Mari Aizegak eta patronatuko sukaldariek eman dute titulazio berriaren zehaztasunen berri eta datozen ikasturtean 50 gazte ikasketak hasteko moduan izango direla adierazi dute.

Mondragon Unibertsitateko Gastronomía eta Sukaldaritza Zientzien graduak hutsune hau beteko du, lau urteko titulazio ofizial honen bidez. Gradua gazteei zuzenduta dago batez ere, unibertsitatean sartzeko ikasketak izan eta Goi Hezkuntzako Europar Espaziora egokituta badaude. Gainera, badu beste asmo bat ere: Basque Culinary Centerren ikasi nahi eta onarpen-prozesua gainditzen duen inor ez dadila arrazoi ekonomikoengatik kanpoan geratu. Beraz, finantzatzeko aukera eta beka-sistema propioa izango ditu.

Tituluak profesional kualifikatuak prestatzeko behar guztiak estaliko ditu; lanbidearen egungo erronkei erantzungo die eta ikasketek ikuspegi zientifikoa eta teknikoa izango dute, diziplinarteko ikuspegiarekin. Lau ezagutza-alor handi izango ditu: sukalde-areto-sommelier teknikak; Negozioaren kudeaketa; Zientzia eta teknologia eta Kultura eta artea. Klaseak gazteleraz eta ingelesez emango dira.

Informazio gehiago lortzeko egin [klik hemen](#).

Bideoa ikusi nahi baduzu, egin [klik hemen](#).

www.bculinary.com

